

ILARGIRA NOA 1965

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Alaitz eta Maider
Moldaketak: Mikel Errazkin

Nerekin damazkit pentsakizunak.
 neronekin ezin ikusiak.
 neronekin gose ta gorrotoak.
 neronekin inbiri guztiak.
 hemen uzten ditut nahirik onenak.
 hemen pakea ta osasuna.
 hemen gizonaren eskubideak.
 hemen danontzat askatasuna.
 agur, agur, agur, ilargira noa.
 agur, agur, agur, ilargira noa.
 amets orla bart gauean egin dut.
 amets onek jarri nau poztuta.
 baina almeriako bonba horrek
 utzi dit ametsa zapuztuta.
 eta orain ezin ilargira joan.
 eta orain ezin ilargira joan.

bateria: Igor Telletxea baxua: Txema Garcés kitarak akustikoak eta elektrikoak: Xabi Lopez saxo sopranoa: Mikel Andueza tekladoa eta korak: Mikel Errazkin



DONOSTIA 1998

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Antton Valverde
Moldaketak: Karlos Gimenez

Donostiayko, donostiayako kale etzertzen nijo.
 nun dira festak? nun kanabalak? non donosti airosoa?
 turista jende beneragarri, sos ekarle tajuzkoa.
 alfombra persak estreineagarri, ongi hartu kanpokoa.

donostiarra, donostiarra, zein duk hire bihotz kolpe?
 arrotz eskolan meritu handi, etheko guzaitzen berde.
 erreal bikoz dizdiragarri kalean jarririk haute.
 etheko gauzak usteltzen dituk haizenkan hartu gabe.
 donostiayatik, donostiayatik zabaltzen da eder fama.
 nori galdetu autobusean nor ordaitzen duen zama.
 udaleteko terrazan danba kanoi zaharrenen eztanda.
 donostiaren festa bakarra, ethekoen danbodarra.
 donostiaren, donostiaren xarmantasuna non datza?
 kaxkarin jende maitagarrien farranda, kantu ta dantza.
 anoetako kiroldegia, orfeoiaren gohi-hatsa
 alde zaharreko pintxo gozoak eta kontbako hondartza.
 donosti maite, donosti maite, eroria pekatuan.
 arrotz hizkuntzak erabili ta euskera han museoa.
 umorearen sena gain-behera ta inor gutxi kantuan.
 horrela ezin sekulan sartu donostiarrik zeruan.

bateria: Igor Telletxea baxua: Txema Garcés pianoa:
 Karlos Gimenez akordeoia: Jabier Muguruza



AMONAREN SUKALDEA 1998

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Oihana eta Aritz Lekuona
Moldaketak: Karlos Gimenez

Negua zen luze, negua izotzetan galdua.
 sutondoan bero katua, goxo loak hartua.
 maiaren azpian sartua ardi txakur sutua.
 amonaren jiran bildua sendi zoriontsua.
 ilunaren zai. ilunaren zai.

atzeko leihotik haizea, ulu kantuz enrea.
 laratzetik perza betea, mugiz gure gosea.
 talo egiteko oreka, maira baitan gordea.
 amonaren zentzu luzeak zaitzen du sukaldea.
 aitonaren zai. aitonaren zai.

afaldu aurretik kantua bihotzetik sortua,
bertso zahar paperen lekuak hartzen du astindua,
gero errosario santua zintzo erreztatua,
amonak ohera besuan darama aingerua,
ametsaren zai, ametsaren zai.

pianoa: **Karlos Gimenez**

PORTUKO MARINELA 1998

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Ahotsak: Imanol

Moldaketak: Karlos Gimenez

Gauetz taberna zokuetan
portuko arrabaletan
marinel kantua,
ahots zakar mozkortuetan,
hitz marrantatuetan,
herri min soinua.
bandoneoiaren hotsetan
pixten da sabeletan



zirrara gozua.
zerbezaren hatzaparretan,
sortzen zaigu gauetan
maitasun gogua,
ur handitako ontzi gidaria,
ez ni utzi kai honetan
min dut nere herria. (bis)

argi epel salataria,
itxaropen ezia
begien gauean,
maitasuna negu gorrian
aurkitzen den neurrian
dut aldamenean,
koilare eratzunez jantzia,
eskote oparia,
nerretzat ustean.
patriketako hutsaldia
izan dut nabaria
barraren ertzean.

Marinelen bizi merkea,
ipuin bitxiz bete
izaten da beti.
Goizeko izarnik gabea,
umezurtz kantorea
maite kontu gubi.
Sarritako bakardadea
lagunetik gordea,
ixilean bizi.
Ontzian du bere etxea
kaietan jolaslea
ote da merezi.

baxua: **Txema Garcés** pianoa: **Karlos Gimenez**
akordeoia: **Jabier Muguruza**



Oles ta Oles koroa: Mentxu Aiertza, Itziar Ansa, Juan Jose Añorga, Isabel Aramburu, Aritz Lekuona, Arantza Arieta, Garbiñe Atorrasagasti, Pedro Egizabal, Jon Etxegia, Sonia Florez, Maider Garcia de Cortazar, Adrian Intxaurrendieta, Ane Irazustabarrena, Guadalupe Lobo, Iratxe Madarieta, Fernando Marín, Nerea Markaide, M^{re} Asunción Mendizabal, Iratxe Mijangos, Mikel Ibarrondo, Maite Otegui, Rubén Rivera, María Isabel Vaquero, Mikel Alberdi, Garbiñe Darceles, Oihana Lekuona, Eluska Ugalde. Zuzendaria: **Dani Ugalde**

ITSASOAN URAK 1968 HANDI DIRE

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Ahotsak: Oles ta Oles Koroa

Zazpi laguneko famili batean
arotza zen gure aita
gure herriko alkate ez izan arren
lan egiten zuena.

itsasoan urak handi dire,
murgildu nahi duanentzat

gure herriko lanak
andi dire, astun dire, gogor dire
zatitunik gaudenentzat.

markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat
lehenengo sokari ezarritik datorren
oztopo latz besterik.

NERE MAITEARI 1998

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Oihana Lekuona eta Garbiñe Darceles
Moldaketak: Mikel Errazkin

Ekaitzak du tximista erronka ezaugarri zu nere telebista bizitza gozagarri maite minduen erreka bihotzen freskagarri zure begien oreka nere nahien iturri

begien irudimenez zerua zuregan nuen ikusi estalirik zorionez zure kateetan murgilduz jausi xerka ninduzun gau beltzez ametsetan zinen beti nagusi zu gabe ezin biziez ezer ez eta dena zitzaidan hautsi

maiteenetan izar argitan argiena mendealdean nabar haizerik epelena bortuetan ibas adar uztia emankorrena itzazu besoak zabal har nazazu den dena

bitzizaren eztaletan noizean itzala noizean argi ibaropenik airean ez uka galdetzen ote den bizi tristeziaren mailkoak baratzeke lorez xukatu beti maite iturri gozoa lehortu ez dadin ametsez busti

udaberriak zuregan hartutzen du atsegin arrano xuriak hegan sorgindurik zurekin pazio loreen dizdira gortetan erregin zure besoen kabira maite nahi nuke urbil

adiorikan gabeko zelata eguna nabarmentzean piztu zazu zoriona ez zaite erori hodei beltzean amoranteen zalduna loratuko dugu bien artean bataiatzeko iluna dadin argi berri lur zabalean



bateria: **Igor Telletxea** baxua: **Txema Garcés** kitarrak: **akustikoak** eta **elektrikoak**: **Xabí López** saxo soprano: **Mikel Andueza** bibolina: **Aitor Hevia** bibolina: **Enekoitz Martínez** biola: **Lander Etxebarria** biotxeloso: **Elena Escalza** tekladoa: **Mikel Errazkin**

EZ, EZ DUT NAHI 1966

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Benito Lertxundi

Ez, ez dut nahi ez, ez, ez olako, zibilizatorik.

kaiolaren adarrak ditugu alboan. eskuindarrek eskua zabaldu juxtu. zigor indarren menpe tiroak gogoa. horrela bizitxerik ez dago munduan poliziak nun-nahtik zerbait egitean. pentsatu arazi nahi makil indarpean. irudi du gerala kaiola batean jarritako txoriak fusilen menpean.

horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik. zibilizazioaren sasi jaungoikarik. libre nahi dut bihotzez, libre loturetik, basurdearen gisa ortzak estuturik.



HAUTSI EZ DADIN KATEA 1998

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsak: Antton Valverde
Moldaketak: Karlos Gimenez

Hasiak ziren, hasiak marboko udaberriak, heldu gabeko gaztetasuna irudi du gizadiak. orlegi heze minbera batek sortzen ditu garraiak. bide ertzeko xumetasunez jaioko dira berriak, askatasunez lehortu nahi duen gure herriko historiak.

oihal setaren dizdira izarretatik begira.
haize otanak astindu eta itzala dakar ontzira.
itsas zakarra jausten denean arbasoen iturrira.
zenbat hilobi, sofrikario, joanak zeru handira.
askatasuna, bake garaia etor dadin gure herrira.
iriki nahirik atea, pausoka doa jendea.
tupin gorriak deseginetan urratutako bidea.
zazpi deabru praka gorriek jan nahi digute habea.
baina sustraiak indartuz doaz, suspertuko da lorea.
belaunez belauin zainduko dugu hautsi ez dadin katea.

bateria: **Igor Telletxea** baxua: **Txema Garcés** kitarra
elektrokoa: **Aritz Lekuona** pianoa eta tekladoa:
Karlos Gimenez

HILTZAILE BAT BEZELA 1964

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsa: Imanol
Moldaketak: Karlos Gimenez

Hiltzaile bat bezala hemen naramate.
bi eskuak loturik mundutik aparte.
errurik ez dudala azaldu nahi nuke.
egia nahi dunantzat emana dut merke.
egia esan eta zigorrez erantzun.
gure bizkar moretan ditekete irakur.
egia esan eta obe te da entzun.
munduak esandako zortzi mila gezur.
nola nahi dela ere egirik ez utzi.
naiz zigorrez laztandu zure gorputzari.
gure eginkizuna eman munduari.
egiak gartzen dun indar berri hori.



bateria: **Igor Telletxea** baxua: **Txema Garcés** saxo
alttoa: **Mikel Andueza** pianoa: **Karlos Gimenez**


MARTIN LUTHER KING 1966

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Ahotsa: Xabier Lete
Moldaketak: Karlos Gimenez

Bi mando aurretikan dituzula
gorputz karro zar baten gainean
mundu guztiak zurekin batera
nabaitu du otzikara bere bihotzean
berotu zaizkigu gure erraiak,
sinistu ezinetik igesi
gorputz zarrean indarra bezala
zure maitasun bideak
tiro zakarrak aztuarazi

ez, ez etsi!
gurea degu bizitza
goizeko eguzki gorria
gure ibaropenen iturria
zure bizitza bururatu beti
giza eskubidearen bila,
maitasuna artuaz zure gidari
izan dituzun bidean estropotzu mila.
bakezaleen gidari aundia.
askatu nahi zure anai beltzak,
gaizkileen atzaparretan gorputz
arkitzen dirade orain.
zure maitasunaren ametsak.

azkenik aurkitu dezue pakea.
ilotzik lortu askatasuna.
azkenik zabalduz gure zuretat
eguzkia begiz ikusiko dezun eguna.
oroi zaite emen gelditzen geran
zure anai behartsu guztiaz



askatzeko beingoiz eta betiko
gizona gogor loturik
daukaten kate izugarriak.

bateria: **Igor Telletxea** baxua: **Txema Garcés** trompeta:
Chris Kase pianoa: **Karlos Gimenez**

GANBELU ZAHARRA 1998

Hitzak eta doinua: **Julen Lekuona**
Interpretazioa: **Mikel Errazkin & HF**
Moldaketak: **Mikel Errazkin**



Ni naiz ganbelu zaharra maite dut nere bizia mila esaldiz hautsia zer nolaren hotzikara bizi senaren galdara jaso nuen oparia bihotz taupaden neurria ixurtzen zait begitara irudimen nabaria jaiotzen zait bizitzara noizbait egin dut algara dastatuz mundu berria hemen behar nuen ausart beste guziak bezala ez dut irudi apala albokoan grina dakart behar nuke egin zirt-zart har askatasun zabala hautsi legeen itzala errespetatuaz ailar zorionaren mantala bihotz aterpean damart murmurio hautsa mar-mar maitasunaren eza badut nere bihotzean egin behar denerako hartu ditut kanturako mila ordu magalean testigutza bortitzean zerbait utzi gerorako nahiz ez dudan ez alxako oihartzunik oihanean ez dut nahi azkeneko utzerik nere aurrean negar malkorik airean gau ilunabarrerako

bateria: **Igor Telletxea** baxua: **Txema Garcés** kitarrak akustikoak eta elektrokoak: **Xabi Lopez** saxo altoa: **Mikel Andueza** bibolina: **Aitor Hevia** bibolina: **Enekoitz Martinez** biola: **Lander Etxebarria** biolontxeloa: **Elena Escalza** ahotsa eta koroak: **Ane Odriozola** programazioa eta tekladoa: **Mikel Errazkin**

NI HILTZEN NAIZENEAN 1998

Musika: **Jabier Muguruza** Hitzak: **Julen Lekuona**
Ahotsa: **Jabier Muguruza**
Moldaketak: **Jabier Muguruza** eta **Karlos Gimenez**

Ni hiltzen naizenean, maite ez negar egin; ez negar egin.
ni hiltzen naizenean, maite ez negar egin.
bihotzetik sortzen zait belar guri berdea urte luzetan zehar jantzi dugun bidea elkarren begientzat izan dugun gosea gurea da bizitza eta heriotza gurea
gure haurrak jan dute maitasun seaskatik bizitzaren zantzia edan gure eskutik giza legeez hornitzen salatuz errokit adin dute, jarraitzeko aukerako bidetik.
sendikoen gurpilak emandako babesa benetako lagunek zainduko zure kezka ondasun hau izan da beti nire ametsa hauts nintzen da; hautsean dut jaurti nere bihotza dolu dute hilkanpainen hotsa iheskor den bezala requiem hausnarretan senti bihotz zirrara bizitzaren lanbroak sendatzen dun gesala. bizitza da, kantua da, itaropen zabala

koroa: **Oihana Lekuona** akordeola: **Jabier Muguruza**
pianoa: **Karlos Gimenez**

Es Kerrak. Gipuzkoako Foru Aldundia, Irungo Udala, Euskadi Irratia, Pagoarte Kultur Elkartea. Parte hartu duten abeslari eta musikariei, egindako lana eta jarritako ilusioagatik. Oles ta Oles koroa (hurrengo Finlandia!), Kamele, beti prest eta tinko, guregatik lehen urratsak jorratuz. Nikolas Aldai, erreztuko materialagatik. Antton, zure laguntzagatik Jabier, Julenekin erdi-bana daukazu abesti hunkigarriengatik. Karlos, egindako lanagatik. Xabi, azalpen(ik) beharrik ez. Nerea, opari ederrenagatik: zure margo zoragarriak. Aizpurotxoko jende maiteari, betirako. Casti, por tu acogida y por tu paciencia. Mikel, por tu inestimable trabajo, por tu entrega, por tu infinita paciencia y comprensión, por todo lo compartido. Por ver siempre más allá...



■ ■ ■ eta amari galdetu genion: "Ama, zuk zergatik ez duzu diskarik grabatzen?" Haurrak ginelatzen iruditzen zitzaigun aitaren, Julenen, bi diska etxean edukitzea. Beti zebilen gitararekin gora eta behera, beti zerabilen doinuren bat buruan eta boligrafoaren bat altxoan...badaezpada. Agian, Urolako treanean zihoraneke aldi hartatik hartuko zuen ohitura hura; errebisoreari boligrafoa eskatu eta bere tren txartel hartan Hiltzaile bat bezala sortu zueneko aldia.

Azkoitiko Aizpuruko auzoko Don Julian erretore izana, hara iritsi zen bere gitarra lagun zuela eta maletan berriz, txikitatik familian jasotako ondare musikalki aberatsa eta seminarioan egindako armonia ikasketak zeramatzalarik. Hasieratik bukaeraino Kantautorea izan zen Julen.

Bere lehen kantua, Hernanin fusilatu zuten Osaba Martin-i (apaiz sindikalista) ondu omen zion, 1963an. Hortik aurrera, kantautoretzari ekin zion herri ezberdinetan kantaldiak eskainiz, garaiko agintariaren hiltzetan "apaiz batentzako batere egokiak ez diren aldarrikapenak" eginez. Parisen Euzko Gaztedi-Resistencia Vasca produkzioarekin grabatu zituen bere lehenengo bi diskak (Egia 1 eta Egia 2); Julenek bere bakarko lekukotzarekin jarraitu zuen 1965 urte inguruan Ez dok Amairu taldean sartu zen arte.

Haurtzaroa utzi genuen eta gaztetxo ginelarik aitaren kantagintzari buruzko galdera asko buruan. Gizon humila, ezer gutxi zion bere biatzari buruz. Beharbada bilobentzako gordeak zituen bere gaztetako istorioak; nor daki. Nerabe hutsak ginen eta egun batean, etxeko eskritorioan paper zahar horizatuak: "Ilustrísimo Señor...[Gozaitzegiari zuzendua]...siempre he considerado mi actuación como una forma de apostolado". Tartean 67ko maiatza. Erantzuna: "Prohibimos al Rvdo. Sr. Don Julian...cualesquiera actuaciones en público para interpretar canciones". Filme bat zirudien eta egia izan ordea.

Isilaldi luze baten ondoren, nahiz eta kantu sormenari ez zion utzi, berritri plazaratu zitzaigun Julen 1999an "Hautsi ez dadin katea" liburuarekin eta Oiarzango Pagoarte elkartearen kantaldi bat eskaini zuen. Beste behin, entzelegoarekin lortzen zuen hurbilteta eta harreman berezi horretaz gozatzeko aukera eskaini zigun; sugeak ere liluratzeko gai baitzen Julen.

Hil baino lehen, asmo argi bat zerabilen buruan; diska berri bat irailaren argitaratzearena alegia. Guk, bere familiak, bere asmoa aurrera atera nahi izan dugu.

Zuretzat Julen, zuregatik.

1966 EZ, EZ DUT NAHI

Ez, ez dut nahi ez, ez, ez
ez olako, zibilizaziorik.

kaiolaren adarrak ditugun alboan.
eskuindarrek eskua zabaldu juxtu.
zigor indarren menpe tiroak gogoan.
horrela bizitzetik ez dago munduan
poliziak nun-nahtik zer bait egitean,
pentsatu arazi nahi makil indarpean.
irudi du gerala kaiola batean
jarritako txoriak fusilen menpean.

horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik.
zibilizazioaren sasi jaungoikorik.
libre nahi dut bihotzez, libre loturetik.
basurdearen gisa orzatz estuturik.

ALELUIA 1966

KANTA DEZAGUN DANOK

hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta: Aleluia!

POZTU, ANGERU,
Poztu zeru lurrak,

Poztu eliza,
Poztu, herriarrak.
KANTA DEZAGUN DANOK
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta: Aleluia!
POZTU, FAMILI,
Poztu, gurasoak,
Poztu biziak,
Poztu, hildakoak.

1964 HILTZAILE BAT BEZELA

Hiltzaile bat bezala hemen naramate.
bi eskuak lotunik mundutik aparte.
errurik ez dudala azaldu nahi nuke.
egia nahi dunantzat emana dut merke.

egia esan eta zigorrez erantzun.
gure bizkar moretan diteke irakur.
egia esan eta obe te da entzun,
munduak esandako zortzi mila gezur.
nola nahi dela ere egirik ez utzi.
naiz zigorrez laztandu zure gorputzari.
gure eginkizuna eman munduari.
egjak giartzen dun indar berri hori.

1964

ERREGE BALTAXARREN BALADA

Auzoko Joseba, ume begi xuri,
errege beltza aurrean;
- Aizazu Baltaxar, asko dezakezu,
amak esan dit goizean,
Jostailuz ta goxoz asperturik nago
ta ekarri neri gauean,
aspalditik nago pentsamendu goxoz,
andregai baten nahiean.

Baltaxarre berri, oso harriturik
horrela dio Josebari:

- Aizak hi Joseba, ez nazak faborez
estuasuenean jarri.

Inor izan baitz, betekoe nitek nik,
bihotzez hire nahi hori.
Gauza hoiek ordea, handienak dituk,
konprenitzen saia hadi.

- Orduan zergatik esan zaudela zu
dana ahalmenez beterik.
Demostratu ezazu hemen nere aurrean
hor ez dagola gezurrik.

Bestela ez pentsa nahiz zu handia izan
engainatuko nauzunik.

Esanak bakarrik ez baitu egiten
arrazoiaren itzalik.

Errege Baltaxar goibel jarri da ta
gelditu zaigu builik,

pentsatuz ez duela Joseba gazteak

inondikan arrazoirik.
Ta Josebak ez du berriz adituko
Baltaxarren erantzunik,
sekulan ez baitu arrazoiak izan
bihotzkadaren indarririk.

AI ZAK, HII 1966

Ai zak, hii!
Kalean bildurrez
hoan hori! (bis)

Abrigoan solapak
altxata hoi.
Txapela begitaino
sarturik.
Ez duk atzera
begiratutzen, ere,
inor ote datorren
ikaratunik.

Ai zak, hii!...
Ez haiz piyo
hire etxean ere.
Ez duk inorrek
konfiantzarik.
Arropak, ere,
erregistratzen dituk,
ba ote daukaten
mikrofonurik.

Ai zak, hii!...

Utzi hitzak
pintura poteak.
Gorde ondo
hire osasuna.
Pentsatu, gero,
gaurko egunez,
kinielatan zegok
etorkizuna.

Ai zak, hii!...

1965 OH, AINTZINAKO EUSKAL HERRIA

O, Aintzinako Euskal Herria (errep.)
Aintzinaren arnasa gudan dugu senti,
gure sustrai erroak zeinen urrutik.
Haitzuloko gizona degu egun senti,
harkaitz margo bertso zahar izanik ederti.
Oi, herri maitati,
artzai bizi ezti,
pakezko barruti.
Herri zahar bat gerala pentsatu beti. (errep.)

O, Aintzinako Euskal Herria (errep.)
Orainaren ziztoak guretzat badu txar,
hondamendira goaz heriotz suhar.
Erdibiturik gaude Bidasoan zehar,
gero gerra galduta amur eman behar.
Hizkuntza zaigu zahar,
eskubideak gal,
arnasik ezin har.

Herri txiki izanak kalte hau dakar (errep.).
O, Aintzinako Euskal Herria (errep.)
Geroaren adarrak nahiz ez egon urrez,
zertan datorriguna hartu beldurrez.
Ezer ez dezakegu armaren indarrez,
baina iraun gogo hau askatu sukarrez.

Bai gu hil beharrez,
heriotz baldarrez,
gero estali lurrez.
Baina herri bat hiltzen ez duk hain errez (errep.).
O, Aintzinako Euskal Herria (errep.)

1968 ITSASOAN URAK HANDI DIRE

Zazpi laguneko famili batean
arotza zen gure aita
gure herriko alkate ez izan arren
lan egiten zuena.

itsasoa urak handi dire,
murgildu nahi duanentzat
gure herriko lanak
andi dire, andi dire, gogor dire
zatitunik gaudenentzat.

markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat
lehengo sokari ezarriak datorren
oztopo latz besterik.